



Zarauzko hondartzaren

ingurumen kudeaketa



Zarauzko Udala
Udal Zerbitzu Teknikoen Saila

2016ko Ingurumen Deklarazioa (EMAS III)
(2017ko maiatzean landua)



INGURUMEN KUDEAKETARAKO SISTEMA	
DATU OROKORRAK	
• Aurkezpena	1
• Irismena	2
• Hondartzaren kudeaketaren arduradunak	3
• Politika	4
• IKSren deskribapena	5
• 2015. urteko Ingurumen-alderdi esanguratsuak	6
INGURUMEN PORTAERA ETA PLANGINTZA ARLO BAKOITZEKO	
• Hondakinak	7
• Ura	9
• Energia	11
• Bainatzeko uren kalitatea	13
• Biodibertsitatea	15
• Azpikontratekin ingurumen lanketa	17
• Sistemaren hobekuntza	19
INGURUMENAREN ARLOKO LEGEZKO BETEKIZUNAK	
• Ingurumen arloan aplikatu beharreko legezko betekizunen betetze mailari buruzko iruzkina	20
ANEXOAK: ERAKUNDEAK INGURUMENAREN ARLOAN DUEN JOKABIDEARI BURUZKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK	
• Nola egiten dugu Ingurumen alderdien identifikazioa eta ebaluazioa	22
• Adierazleak kalkulatzeko aspektu-metodologiakoak	23
• Ingurumenaren arloko jokabidea ezagutzeko beste adierazle batzuk	24
• 2016 urteko programa	26
INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA EGIAZTATZE-ZENBAKIA, ETA BALIOZTATZEAREN DATA	27

AURKEZPENA

Zarauzko altxorra da ia bi kilometro luze den hondartza, itsasora zabalik dagoen leku aktibo eta dinamikoa.

Naturak eskaintzen digun aberastasun horretan, ekialdean dauden dunek eta padurek osatutako eremua, babestuta dago. Paisaia hau osatzen dute ekialdeko portu txikiak eta itsas pasealekuak, aisiarako eta gozatzeko tokiak.

Beraz, babestu behar den baliabide natural eta ekonomikoa da. Zarauzko udalak badaki hori, eta horregatik, hondartzaren kutsadurari aurrea hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen ditu.

Hondartzako eta itsas pasealekuko jarduerak eta zerbitzuak ingurumen-irizpideen arabera kudeatzeko helburuarekin, hondartzaren kudeaketa aritzen diren udaleko zerbitzu teknikoak **2002. urtean** ingurumena kudeatzeko sistema ezartzen hasi ziren.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori **ISO 14001** nazioarteko arauaren arabera ezarri zen, eta ondoren, **Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoreko araudira (EMAS)** egokitu zen.

2016ko otsailak 2an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, ekitaldi publikoan, aintzat hartu zuen Zarauzko udalak 10 urtez baino gehiago ingurumen portaera etengabe hobetzeko izan duen konpromisoa.

Dokumentu hau Udal Zerbitzu Teknikoen Sailak egindako Ingurumenaren Gaineko Deklarazioa da eta 2016. urteko Zarauzko Hondartzaren Kudeaketa Integralari dagokio.

Zarauzko Udalak jendearen eskura jarri du Ingurumenaren gaineko Deklarazioa, web-orrian eta bulegoetan:

Udal Zerbitzu Teknikoak

(JESN-2009: 84.11 “Herri Administrazioaren jarduera orokorrak”)

- Zigordia Kalea 13, 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
- Tf: 943 005159 / Faxe: 943 005 202
- helb. el.: brodriguez@zarautz.org
- Harremanetarako pertsona: Begoña Rodriguez Iraeta
- Ziuertagiriaren erregistro zenbakia: ES-EU-000021

IRISMENA

Zarauzko Udal Zerbitzu Teknikoen Saila , hondartzaren kudeaketa.

Ingurumen Kudeaketarako Sistemak Udalaren ardurapean dauden Zarauzko hondartzako jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei eragiten die.

Hondartza eta itsasertzeko pasealekua hartzen ditu sistemak, eta kanpo gelditzen dira pasealekuko sarbideak eta portua, nahiz kafetegietako mahaia.

2013 urtean Zuzendaritzak erabaki zuen Mugikortasun arloa ere Sistema honen irismenean txertatzea, bereziki hondartzara datozenek erabiltzen duten garraioa eta horrek sortutako ingurumen inpaktua.

Goian aipatutako jarduerak, produktuak eta zerbitzuak honako haiek dira: hondartzako garbiketa (Foru Aldundiaren eskumena da, eta Udalari haiekin koordinatzea dagokio) eta itsasertzeko pasealekuaren garbiketa, kabina kolektiboen zainketa, toldoak eta aulkiak kudeatzea, salbamendu eta sorospen-zerbitzuak, instalazio guztien mantentze-lan orokorrak, hondakinen gaikako bilketa eta herritarren segurtasuna. Bainatzeko uren eta hondartza inguruko eremuaren kontrol sanitarioa Eusko Jaurlaritzaren eskumena izan arren, Udalak jarraipena egiten du.

Zerbitzu horietako batzuen ustiapena, esleipen-prozeduren bidez, enpresei esleitu zaie, baina udaletik zerbitzu horien jarraipena eta kontrola egiten da.





Oraingoz Zarauzko Udalak ez du sistema honen irismena beste departamentu batzuetara zabaltzea aurreikusten.


HONDARTZAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNAK

Zarauzko Udala, Udal Zerbitzu Teknikoen bidez arduratzen da udal izaerako eskumenak kudeatzeaz, aztertzeaz eta garatzeaz.

Udal Zerbitzu Teknikoen Saila Zarauzko Udalaren organigramaren barnean sartzen da. Sail hau bi zerbitzutan zatituta dago: Hirigintza, Plangintza eta Ingurumena, eta Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuak. Ingurumen Kudeaketarako Sistemarekin erlazioan utakoak adierazi dira.



 Hondartzako IKSren Ingurumen Batzordea

 IKSn ardurak dituzten eragileak

POLITIKA

ZARAUZKO UDALA, tokiko erakunde publikoa, jabetzen da ingurumena errespetatzeak eta natur baliabideak zaintzeak duten garrantziak. Horregatik, Udalak bere jardueran gizartearen garapen iraunkorra bultzatzeko, Zarauzko hondartzan ingurumenaren arloan duen jokabidea hobetzeko konpromisoa hartzen du, udalerriko bizitzaren protagonista naturala den heinean.

ZARAUZKO UDALAREN konpromisoa hondartzaren kudeaketan, honako jarduketa-ildo hauetan oinarritzen da:

- Legezko ingurumen-baldintzak eta jarduerarekin lotutako beste batzuk betetzen direla bermatzea; baldintza horiek uneoro aplika daitezke.
- Ingurumenaren arloan duen jokabidea etengabe hobetzen dela bermatzeko eta kutsadura aurreikusteko helburuak ezartzea eta beharrezko baliabideak eskaintzea; helburu eta baliabide horiek aldian-aldian berrikusiko ditu gai horretan eskumena duenak.
- Udalak egindako lanaren barnean ingurumenari dagozkion alderdiak txertatuko dira, eta Udalaren hobekuntza orokorrerako epe luzeko faktore garrantzitsutzat hartuko dira, Udalaren jarduerak ingurumenean duten inpaktuak murrizteko.
- Natur baliabideak aurrezteko ahalegina egitea, egindako prozesuen kalitatearen bitartez eta baliabide horien erabilera ahal beste murriztuz; horretarako, ingurumen-eraginkortasuneko metodoak erabiliko dira.
- Erabiltzaileen inplikazioa eta parte-hartzea bilatzea sentsibilizazioaren bitartez, horixe baita hondartzan ingurumenaren arloan jokabidea hobetzeko funtsezko elementuetako bat.

Prestakuntza eta sentsibilizatorako plan egokiak ezartzea, Udaleko langileak nahiz azpikontrata garrantzitsuenak informatuta daudela eta Udalaren politika, helburuak eta betebeharrak ulertzen dituztela bermatzeko, eta erantzukizun-printzipioa ezartzea, langile eta esleipendun guztiak, egiten duten jardueraren barnean, ingurumenarekin lotutako gaietan arduradun izateko.

Ingurumen-politika hau ZARAUZKO hondartzako jarduera, produktu eta zerbitzu guztietan aplikatuko da, egoera normaletan, egoera ez normaletan nahiz larrialdiko egoeretan.



IKSAREN DESKRIBAPENA

Udalak hondartzako zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko tresnatzat hartzen du Ingurumen Kudeaketarako Sistema, eta baita legea betetzen dela bermatzeko ere, eta zerbitzu horiek dagokion arloan zehaztutako politikara egokitzen direla ziurtatzeko.


Ingurumen Kudeaketarako Sistemak honako hauek barne hartzen ditu: antolamendu-egitura, erantzukizunak, eskuliburuan oinarritutako agiriak, prozedurak, jarraibideak eta erregistroak, eta prozedura eta erregistro horien ezarpen eraginkorra.

Modu eskematikoan, Erakundeak ingurumenaren arloan duen jokabidearen etengabeko hobekuntza bermatzen duten sistemako elementuak deskribatu dira:

PLANIFIKATU <ul style="list-style-type: none">● Ingurumen-alderdiak eta horiekin lotutako ingurumen-inpaktuak identifikatu.● Erakundeak bete beharreko legezko baldintzak eta beste baldintzak batzuk identifikatu eta horien jarraipena egin, eta, egoki denean, horiek bideratzeko barne-irizpideak ezarri.● Ingurumenaren arloko helburuak eta xedeak ezarri, eta horiek lortzeko programak eratu.● Zereginaren adierazleak garatu eta erabili.	EGIN <ul style="list-style-type: none">● Kudeaketa-egiturak sortu, funtzioak eta erantzukizunak nahikoa aginpidez esleitu.● Baliabide egokiak eskaini.● Langileak prestatu, eta kontzientzia hartzen dutela eta dituzten eskumenez jabetzen direla bermatu.● Barneko nahiz kanpoko komunikaziorako prozesuak ezarri.● Dokumentazioa garatu eta zaindu.● Dokumentuen kontrola ezarri eta bideratu.● Eragiketen kontrola ezarri eta zaindu.● Larrialdiko egoeren aurreko prestasuna eta gaitasuna bermatu.
JOKATU <ul style="list-style-type: none">● Zuzendaritzak Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren berrikuspenak egin aldian-aldian.● Hobekuntza-arloak identifikatu.	EGIAZTATU <ul style="list-style-type: none">● Etengabeko <i>jarraipena eta neurketa</i> egin.● Legezko baldintzak eta aplika daitezkeen beste baldintza batzuk bete diren ebalatu.● Adostasun ezak identifikatu, eta ekintza zuzentzaileak nahiz prebentiboak egin.● Erregistroak kudeatu.● Aldian-aldian barne-ikuskaritzak egin.

Ingurumen kudeaketarako sistema

Ingurumen sistemaren dokumentuak



2015. URTEKO INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

Ingurumen kudeaketarako sistemak zehaztuta ditu zein arlo izan behar ditugun kontuan (ura, energia, zaborrak, zarata...), eta sistemak berak adierazten digu, arlo hauen urteroko emaitzen arabera, horietatik zein diren bereziki landu beharrekoak. Azken hauei “ingurumen alderdi esanguratsuak” deitzen zaie. (Informazio gehiago Anexoa)

Aurreko urteko emaitzen azterketak ondorengo “alderdi esanguratsuak” eman zituen, 2016 urtean bereziki kontuan izateko.

INGURUMEN-ALDERDIA ESANGURATSUAK	IZAERA
Energia elektrikoaren kontsumoa, hondartza eta pasealekuan	Zeharkakoa
Kalteak bioaniztasunean.	Zeharkakoa

Hortaz 2016 urtean ahalegin berezia egin behar genuen arlo horiek hobetzeko.

Jarraian ingurumen-alderdi bakoitzeko azken urteotan izandako bilakaera eta izan den ingurumen eragina aurkezten ditugu. Ingurumen-alderdiak esanguratsuak izan direnean, bakoitzarentzat ezarri ziren helburuak eta helburu hau lortu ahal izateko programatu ziren ekintzak aipatzen ditugu.

Hurrengo orrialdeetan programazio horren betetze maila eta lortutako emaitzak jasotzen ditugu.


INGURUMEN-PORTAERA

Urtero itsas pasealekuan biltzen diren hondakinei buruzko informazioa biltzen dugu.

2016 urtean ez da hondakin arriskutsurik sortu, hortaz, atal honetan hiri hondakin ez arriskutsuak aztertu ditugu.



Hondakinak gaika biltzeko edukiontzi bereziak daude itsas pasealekuan. Honela 5 frakzio bereizi ahal dira: ontzi arinak, papera, beira, organikoa eta errefusa.



Badirudi hondakin kopurua murriztu egin dela, baina datu horiek tentuz aztertu behar ditugu. Datuak neurtzeko sistema zera da: Itsas pasealekuan bildutako hondakinak, biltegira eramaten dira eta bertan 1000 lko edukiontziak betetzen dituzte. Horiek bete ahala, hustu egiten dituzte eta hustu aldiak kontatu. Sistemak errore maila handia izan dezake eta lortutako datuak orientagarriak soilik izango dira.

Frakzio organikoa oraindik oso gaizki bereizten dute erabiltzaileek eta horregatik ezin izan dugu konposta egitera bideratu. Frakzio guzti hori errefusa gisa kudeatu dugu. Erronka handia da erabiltzaileak heztea frakzio hori garbia izatea lortu arte.

Hondakin ez arriskutsuak	2015	2016
Bereizitako hondakinak %	54	58

HONDAKINEN INGURUMEN INPAKTUAK

Nahiz eta 2015 urteko datuen arabera gaika bildutako hondakinak ez ziren alderdi esanguratsu izendatu 2016 urteari begira, udalak arlo hori hobetzeko helburuak proposatu zituen.

Hiri-hondakinen sorkuntzatik datozen inpaktuak hurrengoak dira:

- Lehen gaien gehiegizko kontsumoa.
- Hondakinen kudeaketaren ondoriok, bai zabortegietan edo erraustegietan. (hondakinen garraioa, lurzoru okupazioa, paisaia eragina, usainak, izurriteak, lixibiatuen eragina, erraustegietako airearen kutsadura, bigarren mailako hondakinen kutsadura...)



Urtetako zabortegia 2014ko abenduan itxi zen

ZER AURREIKUSI GENUEN 2016. URTERAKO?

Pasealekuan sortutako hondakin kopuru osotik, bereizitako hondakinen ehunekoa handitzea. Helburu hau lortzeko ondorengo ekintza planifikatu zuen udalak:

Hondakinen behar bezala bereizteko herri mailako sentsibilizazio kanpaina (ikastetxe, elkarte eta ostalaritzan).

ZER LORTU DUGU?

Udalak aurreikusitako kanpaina ez du burutu. Hondakinen arloan, asmoa izan da Udal Elkartearen esku uztea hondakinen kudeaketa osoa, sentsibilizazio kanpaina barne. Aurreikuspen horrekin, Udalak ez du kanpaina hori berak egin nahi izan.

Gaika jasotako hiri hondakinak		
2015. urteko datua	2016. urterako helburua	2016. urtean lortutako datua
% 54	Portzentajea igotzea	%58 (Datuak zalantzazkoak dira)

ZER EGINGO DUGU 2017. URTEAN?

Hondakinak dagozkion ontzietan ondo bereizteko sentsibilizazioa sakondu. Edukiontzia berriak jarriko dira, erakargarriagoak. Bestalde, Foru Aldundiak, Gipuzkoako hondartzak guztietarako sentsibilizazio kanpaina egitea aurreikusi du.


INGURUMEN-PORTAERA

Hondarretan dauden dutxetako ura eta hankak garbitzeko erabiltzen dena, lur azpiko akuiferotik hartzen dugu eta berriro ere akuiferora itzultzen dugu erabili ondoren. Zerbitzu publikoetan eta iturrietan erabiltzen dena aldiz, herriko ur saretik dator.




Ur kopuru guztiaren % 92a lur azpiko urak dira, aldiz % 8a herriko saretik dator.

Ondorengo grafikoan azken bost urteetako ur kontsumoa adierazten dugu. 2016 urtean jaitsi egin da kontsumo totala aurreko urtearekin alden du ezker.



Jaitsiera izan daiteke eguraldia ere zerbait txarragoa izan delako 2016 urtean eta, hortaz, erabiltzaile gutxiago ibili delako.

Erabiltzailearen portaera:



Erabiltzaile bakoitzeko ur kontsumoa igo egin da (lur azpikoa + sarekoa).

UR KONTSUMOAREN INGURUMEN INPAKTUAK

Ur kontsumoaren datorren inpaktuak hurrengoak dira:

- Lur azpiko akuiferoan eragina: Ura gazitzea, akuiferoaren dinamika desorekatzea.
- Herriko sareko ur kontsumoak zera dakar: Ibilbide naturaletik ura ateratzea, edateko ur bihurtzea eta garraiatzea, horrek dakarren energia kontsumoarekin.



2011 urtean Zarauzko akuiferoari buruzko azterlana egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Akuiferoaren ezaugarriak eta bertako uren dinamika deskribatu zituen. Txostena aztergai dago Udaletxean.

Zarautzek Eusko Jaurlaritzako baimena du lur azpiko ura erabiltzeko. Baimenaren kopurua 48.066 m³/urteko da, baina gaur egungo kontsumoa zifra honetatik oso urrun gabiltza, baimendutakoaren % 24 soilik erabiltzen dugu.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2016 URTERAKO?

2015 urteko datuei erreparatuta uraren kontsumoa jaitsi egin zen aurreko urtearekiko. Horregatik Udalak ez zuen bereziki landu arlo hori eta ez zituen helburu zehatzak jarri.

ZER LORTU DUGU?

2016ko datuak hobeak izan dira, ur kontsumo totala murriztu egin da, baina erabiltzaileen portaerari erreparatzen badiogu, horien kontsumoa igo egin da.

ZER EGINGO DUGU 2017. URTEAN?

2016 urteko datuak berriro hobetu direnez, Kudeaketa Sistemak ez du izendatu ur kontsumoa alderdi esanguratsua denik eta, hortaz, ez dugu aurreikusi neurri berezirik kontsumo hori murrizteko.


INGURUMEN-PORTAERA



Zarauzko hondartzako energia kontsumo handiena argindar saretik etortzen da. Zarauzko Udalak kontratatuta daukan enpresak adierazten du merkaturatutako energiaren % 55a berriztagarria izan dela 2015ean.

Energia horren kontsumo gehiena argiterian, ur ponpaketan eta beste instalazioetan ematen da.

Ondorengo grafikoan uda partean izandako energia kontsumoa adierazten dugu. Zera nabarmendu daiteke:



Elektrizitate kontsumo honi dagokion berotegi efektuko gasen isuria kalkulatzeko baduzu 21.882 kgCO₂e isuri ditugu.

2016 urtean jaitsi egin da energia kontsumoa. Arrazoi nagusia da Aresti kaleko kantina eraberritzen aritu direla eta, nahiz eta 2016ean bertan zabaldu zuten, bertako energia ez da Udal kontsumoetan sartu.

Argiteriari dagokionean kontsumo baxuko sodio baperezko lanparak daude eta fluxua erregulatuta daukate, berezko ahalmena baino potentzia gutxiagoan jarrita daudelarik.

ENERGIA KONTSUMOAREN INGURUMEN INPAKTUAK

Energia elektrikoaren kontsumoaren eragina bereziki energia sortu ahal izateko erabiltzen diren sistemei egotzi diezaiekegu, hala nola zentral termiko, ziklo bikoitzeko edo zentral nuklearrei, eta baita energia honen garraioari ere.

- Berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa.
- Kutsadura nuklearraren arriskua.
- Aldaketa klimatikoarengan eragin nabarmena.
- Garraiorako behar diren lineak duten eragina.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2016 URTERAKO?

Helburua: Energia elektrikoko kontsumoa murriztea.

Ekintzak: Lanparak aldatzen joatea eta potentzia gutxiagokoak jartzea. Argiteriaren ordutegia berraztertzea. Argiterian LED sistemen aukera aztertzea.

ZER LORTU DUGU?

Ez ditugu proposatutako ekintzak egin, energia kontsumoaren arloan, Udala beste gai batzuekin aritu delako lanean (hala nola, kiroldegiko kontsumoak murrizten, kontratuak eta fakturazioak aztertzen eta abar).

Hala ere, Itsas pasealekuan, orokorrean, energia kontsumoa jaitsi egin da.

Energia kontsumoa pasealekuan	
2015 urteko datua	2016 urteko datua
57.143 KWh	47.673 KWh

ZER EGINGO DUGU 2017. URTEAN?

Udala UDAL ENERGIA PLANA prestatzen ari da. Horretarako diru-laguntza eskatu du jada. Plan horrek aurreikusiko du energia aurrezteko egin behar diren ekintzak, non, nola eta noiz egitea komeni den.

INGURUMEN-PORTAERA

Bainurako uren kalitatea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak neurtu eta kalifikatzen du, eta udalak Gurutze Gorriaren bitartez jakin arazten die hondartzako erabiltzaileei.

2016. urtean, uda osoan lortutako emaitzen balioespen estatistikoa egin ondoren, bainatzeko uren kalitatearen kalifikazioa ematen du Estatuko Osasun Sailak. Zarautzeko kasuan hau da kalifikazioa:

Hondartza mendebaldean: **BIKAINA**

Hondartza erdi aldean: **BIKAINA**

Hondartza ekialdean: **BIKAINA**


BAINURAKO URAREN URTEKO SAILKAPENA CLASIFICACIÓN ANUAL DE LA ZONA DE BAÑO			
<p>AZKEN 4 DENBORALDIEN EMAITZETAN OINARRITUTA BASADO EN LOS RESULTADOS DE LAS ÚLTIMAS 4 TEMPORADAS</p> <p>★★★ Bikaina / Excelente ★★ Ona / Buena ★ Nahikoa / Suficiente — Ez nahikoa / Insuficiente</p>	<p>LP3 erdia / PMS erdiko</p> <p>★★★  BIKAINA / EXCELENTE</p>	<p>LP2 500m / PMP</p> <p>★★★  BIKAINA / EXCELENTE</p>	<p>LP1 250m / PM1</p> <p>★★★  BIKAINA / EXCELENTE</p>
BAINURAKO URAREN KALIFIKAZIO PUNTUALA CALIFICACIÓN PUNTUAL DE LA ZONA DE BAÑO			

2016 urtean Osasun Sailak 13 egunetan hartu ditu laginak ekainaren 1etik irailaren 30a bitartean. Aldiro hiru puntuetan hartu dituzte lagin horiek: Iñurritza errekatik 250 m-tara, errekatik 500m-tara eta sorosleen egoitza parean.

Emaitzak onak dira. 2016 urtean kalifikazio guztiak “oso onak” izan dira, egun bakarrean izan ezik: abuztuaren 15ean hondartza mendebaldeko eta erdi aldeko kalifikazioak “ona” izan ziren.

Hurrengo grafikoan Eusko Jaurlaritzak 2012. urtez geroztik denboraldian bainatzeko uren kalitateari buruz egindako analisien emaitzak aurkezten ditugu.

bainurako uraren kalitatea



Udalak arlo honen jarraipena egiten duen arren, ez du eskumenik analisi horien nondik norakoak erabakitzeke.

Bestalde, uraren kalitatean eragin dezaketen arrazoiak oso zabalak dira. Oinarrian, itsasoko uren kutsadura eta errekaen kutsadura daude.

Udala kutsadura horiek guztiak murrizteko ahaleginetan dabil, baina ahalegin hau hondartzako kudeaketa sistematik at dago. Saiatu behar dugu saneamendu sarera joan beharrean, euri uren sarera doazen isurkinak antzematen eta saneamendu sarera bideratzen. Kale urbanizazioak, berritzen diren heinean, sareak aztertzen dira eta isurketa horiek bideratzen dira. Ahalegin horretan jarraituko dugu.

INGURUMEN PORTAREA

Biodibertsitate arloak garrantzi handia du Zarauzko hondartzan. Bai hondartza guztian zehar eta, nola ez, baita ekialdean dugun Iñurritzako Biotopo babestuan ere.

Esan bezala Iñurritzako gunea Biotopo Babestu izendatua dago 1997 urteaz geroztik bere padura, duna eta labarren balioa dela eta. Era berean 2004 urtean Europako Natur Guneen sarean, NATURA 2000 sarean, sartu zuten eta 2012ko abenduan Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu zuten, eta dagokion kudeaketa plana zehaztu zuten.

Zalantzarik gabe zaindu beharreko altxorra da eremu hau.



Itsas ertzeko bioaniztasunaren azterketa egin eta hedatu du udalak 2016 urtean

BIODIBERTSITATEAREN GAINEKO INPAKTUAK

Eremu honetan aurkitzen dugun biodibertsitatea, bereziki duna, padura eta labarretakoa, oso sentibera da gizakion eraginarekiko.

- Lurren okupazioa urbanizatzeko.
- Lurren okupazioa jarduera desberdinak egiteko, bereziki golf jarduera.
- Aisialdirako erabilpenaren zenbait ondorio:
- Eremu babestuetan erabiltzaileen zanpaketa, zarata, zakurrak...
- Zabor isurketa.
- Uraren kalitatearen gaineko kutsadura.

Inpaktu hauek murrizte aldera batetik urbanizazioaren zabalkuntza mugatu behar da gune hauetara. Gaur egun hiri garapena zehazten duen Zarauzko Plan Orokorrak ez du zabalkuntzarik aurreikusten ezta onartzen ere eremu honetan.

Bestetik eremuaren kontserbazioa eta aisialdiko aukerak biak uztartu behar dira oreka egokia aurkituz. Baina Babes Bereziko gune izendatua dagoenez kontserbazio joerak izan beharko du lehentasuna.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2016 URTERAKO?

2016 urterako biodibertsitatea zaintzea alderdi esanguratsu izendatu genuen eta dagozkion helburuak finkatu.

Helburua: Hondartzaren eta hondartza inguruko eremuaren Natur Balioa babestea. Helburu hau lortzeko ondorengo ekintza planifikatu zen:

Dunetako landarediaren liburuxka argitaratzea (Aranzadi elkarte)

Hondartzako arroketo bioaniztasuna aztertzea eta ezagutaraztea. (Azti Tecnaliarekin

Biotopoko hegaztien azterlana egitea (Arkamurka Natur Taldearekin)

Azti Tecnaliarekin hitzarmena sinatzea, itsas ertzeko dinamikaren azterlana egiteko Kostasystem proiektuarekin jarraitzeko

ZER LORTU DUGU?

Proposatu genituen lau ekintza horiek egin ditugu 2016 urtean. Edonork eskura ditu udaletxean dunetako landarediari buruzko liburuxka, itsas ertzeko arroketo bioaniztasunari buruzko lana eta Biotopoko hegaztiei buruzko azterlana.

Gainera bisita gidatuak egin ditugu arroketo bioaniztasun hori ezagutarazteko.

ZER EGINGO DUGU 2017 URTEAN?

Udalak behin eta berriz egin beharko du ahalegina, Eusko Jaurlaritzak onartu duen Iñurritzako kudeaketa planean jasotzen diren ekintzak eta konpromisoak gogorarazi eta betearazteko.



Dunetako landarediari buruzko gida

Gipuzkoako Foru Aldundiak, dunak ezagutarazteko panelak jarri ditu 2017ko udaberrian.

Udalak zera aurreikusi du:

- Biotopoa ezagutzeko bista gidatuak antolatzea.
- Hondartzako arroketo bioaniztasunari buruzko dibulgazio saioak ikastetxeetan egitea.
- Biotopoko hegaztien azterlana argitaratzea.

Udalak hondartzako kudeaketa egin ahal izateko zenbait lan udal langileekin egiten ditu zuzenean eta beste zenbait berriz, kontratatutako enpresen bitartez.

Azken hauen artean ondorengo zerbitzuak ditugu:

- Hondakinak biltzeko zerbitzua.
- Itsas pasealekuaren garbiketa.
- Sorosle zerbitzua.
- Lorazaintzako lanak
- Kantinatako zerbitzuak.
- Aldagelak eta komunak garbitzeko zerbitzuak.



Nahiz eta enpresa hauek udalaz kanpokoak izan, zenbait irizpide barneratu ditzaten ahalegintzen gara.

Horretarako ondorengo tresnak ditugu:

- Enpresa hauek kontratatzeko baldintza oinarrietan zenbait irizpide txer-tatzea.
- Enpresa hauek proposatzen dizkiguten hobekuntzak baloratu eta egina-raztea.
- Enpresaren jarraipena eta kontrola egitea.

Gaur egun ondorengo ingurumen irizpideak eskatzen zaizkie enpresa hauei:

Hondakinen bilketa eta itsas pasealekuaren garbiketaz arduratzen den enpresari eskatzen zaio:

- Kaleak garbitzeko tratatu gabeko ura erabiltzea. Horretarako, Vista Alegreko depositutik hartu behar dute ur hori.
- Beraien lana burutzean ahal den zarata gutxien sortzea. Horretarako kalea garbitzeko haizea botatzen duten makinak, zarata baxukoak dira eta konpromisoa hartzen dute orokorrean bozinarik ez erabiltzeko.
- Hondakin bilketa eta kale garbiketako zerbitzuak, ezarria du ISO 14001 Ingurumen Kudeaketako Sistema. Beraz horrek agindutakoak bete beharko dituzte.

Sorospen zerbitzuaz arduratzen den enpresa:

- Esleipendunak laguntzen du, Udalak hondartza eta honen inguruarekin lotuta egiten dituen kanpainenetan. Bereziki lagundu du Itsas ertzeko bioaniztasunari buruzko dibulgazio irteeretan.

Itsas pasealekuko lorazaintzaz arduratzen den enpresa:

- Esleipendunak, makinaria ahal den isilenak erabiltzen ditu.
- Debekatuta egongo da bozina edo bestelako soinu-dispositiborik erabiltzea hirigunean.

Kantinak kudeatzeko enpresak:

- Esleipendunak hondakinak sailkatuta jasotzen ditu.
- Kantina zein komunak garbitzeko erabiltzen dituzten produktuak ingurumenean eragin txikiagoa dute (ekologikoak eta biodegradagarriak dira).
- Esleipendunak ezin dute erabili oro har jendea gogaituko duen zatararik sortzeko moduko bozgorailu, irrati edo antzeko tresnarik.

Sistemaren hobekuntza.....sistemaren hobekuntza...

2016 urteko PROGRAMAN jasotako ingurumena hobetzeko helburu horiez gain, SISTEMA HOBETZEKO jarduketa batzuk ere ezarri ziren.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2016. URTERAKO?

Bi ekintza aurreikusi genituen:

- Udaleko web orrian Ingurumen Sistemako edukiak hobeto txertatzea.
- Hondakinen kontaketa sistema hobetzea.
- Argindarraren kontsumoaren jarraipena egiteko, denboraldiaren amaieran koadroetako kontsumo grafikoak ateratzea.

ZER LORTU DUGU?

- Asmoa bada web orria berritzekoa, baina oraingoz ez da burutu.
- Hondakinen kontaketa sistemak berriro huts egin du. Susmoa daukagu 2016ko datuak ez direla fidagarriak. Berriro landu beharko dugu gaia hondakinen bilketa egiten duen enpresarekin.
- Argindarraren koadroen jarraipena ez dugu egin.

ZER EGINGO DUGU 2017. URTEAN?

Tamalez 2017 urterako, aurreko urterako proposatuak geneuzkan ekintza berdinak dauzkagu mahai gainean:

- Web orri berria egokitzea.
- Hondakinen kontaketa sistemaren kontrolarekin jarraitzea.
- Argindarraren kontsumoaren jarraipen zorrotzagoa egitea.

ingurumenaren arloan aplikatu beharreko legezko betekizunen betetze-mailari buruzko iruzkina

Sistemaren barnean, erakundeak jardueran aplika daitezkeen legezko betekizunak eta izan behar dituen ingurumen-baimenak ezagutzen dituela bermatzeko metodologia bat dago. Alde horretatik, erakundeak ondoko baimenak dituela azpimarratu behar da:

Ingurumen alderdia	Legezko betekizunak
Hondakinak	<p>Hiri-hondakinak kudeatzeko betebeharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Birziklapenerako edo beste balorizazio-mota baterako bilketa selektiboaren sistemak ezartzea. • Bilketa selektiboaren ezarpenean eta ontzien erabileraren murrizketan partaidetza aktiboa sustatzea. <p>Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena ematek salbu (2002ko uztailaren 10ean idatzia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileari ematea. <p>Eusko Jaurlaritzako ekoizle inerteen erregistroa (2002ko uztailaren 24ko egiaztatgia)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakin inerteak baimendutako zabortegira eramatea • Hondakin inerte balioztagarriak baimendutako kudeatzaileari ematea. <p>Honez gain, modu egokian kudeatu behar dira:</p> <p>Garbiketan jasotako edo sorospen aktibitatean sortutako Osasun-Hondakinak.</p> <p>Hondartzaren kudeaketa aktibitatean sortutako Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak eta pila eta bateriak.</p> <p>Hondartza eta pasealekuko berritze eta mantentze lanetatik datozen Eraikuntza- eta Eraispn-Hondakinak.</p> <p><u>Arau garantzitsuenak:</u> <i>22/2011 legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kuitsatuei buruzkoa.</i></p>
Itsas-aldea	<p>Itsaso nahiz Lehorreko Jabari Publikoa okupatzeko urteko baimena</p> <p><u>Arauk:</u> <i>22/1988 Legea, uztailak 22koa, itsas ertzari buruzkoa.</i></p>

ingurumenaren arloan aplikatu beharreko legezko betekizunen betetze-mailari buruzko iruzkina

Urak	<p>Lur azpiko akuiferoa ustiatzeko lagapena. (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Uren Zuzendariaren ebazpena, 2003ko urtarrilaren 24koa)</p> <p>Kostara zuzendutako isurketen debekua.</p> <p><u>Arauk:</u> <i>1341/2007 Errege dekretua, urriak 11koa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa.</i> <i>1/2006 legea, ekainak 23koa, urari buruzkoa.</i></p>
Legionelosis	Higieniko-osasun urteko mantentzea kabinetan.
Airea	<p>Kabinetako ur beroaren galdaren aldizkako berrikuste eta ikuskapenak.</p> <p>Hondartzan eta pasealekuan lan egiten duten ibilgailuen ikuskapen teknikoa eguneratua.</p>
Zarata	<p>Sorosleek erabilitako moto nautikoen eta kanpoko ekintzetan lan egiten duten makinak "CE" markaketa (pasealeku eta hondartzaren garbiketara).</p> <p>Hondartza eta pasealekuko aktibitateen soinu-maila muga betetzea (zarata eta bibrazio udal ordenantza)</p> <p><u>Arauk:</u> <i>37/2003 legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa</i> <i>Zarata eta bibrazioei buruzko Udal Ordenantza (2015eko irailak 24)</i></p>
Biotopoa	<p>Biotopoaren garapen, antolakuntza eta ingurumen eta hirigintza kudeaketa.</p> <p><u>Arauk:</u> <i>40/1997 Dekretua, Iñurritza biotopo izendatzen duena.</i> <i>515/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioetan Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kobntserbazio-neurriak hartzeko dena.</i></p>

NOLA EGITEN DUGU INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EBALUAZIOA

Zarauzko hondartzako Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren arduradunek, aldian-aldian, hondartzan garatzen diren zerbitzuek eta jarduerak sortutako ingurumen-alderdiak identifikatu eta ebaluatzen dituzte.

Alderdien identifikazioa, hondartzan garatzen diren jarduerak eta zerbitzuak, eta, horiek sor ditzaketen zuzeneko nahiz zeharkako alderdi guztiak kontuan izanik egingo da. Alderdien artean, udal zerbitzuek zuzenean kontrolatzen dituztenak eta erabateko kontrola ez duten zeharkako alderdiak bereiziko dira.

Ingurumenaren gaineko Deklarazioaren xede den kudeaketa-sistemaren barnean sartzen ez diren zeharkako alderdien artean, bainurako uren kalitatea dago. Udalak alderdi honi buruzko informazioa jasotzen du, eta informazio hori jendeari jakinarazten zaio, baina ez dagokio Udalari legeak ezarritako mailak betetzen direla zaintzea.

Zarauzko Hondartzaren Kudeaketa Integralean esanguratsuak diren alderdiak zehazteko, **Maila esanguratsu** bat ezarri da; maila hori bi irizpide hauek biderkatzean lortzen da: **Magnitude-mailak** eta **Arriskugarritasuna**, ingurumen-alderdi bakoitzari esleitutakoa, egoera normaletan eta ezohizkoetan.

Gerta daitezkeen istripuetan edo aurreikus daitezkeen larrialdiko egoeretan, **Maila esanguratsua** ondoko bi irizpide hauen biderketa gisa balioetsiko da: **Gertagarritasuna** eta **Ondorioen larritasuna**.

Zeharkako alderdien kasuan nahikoa informaziorik ez badago, Magnitudearen eta Arriskugarritasunaren irizpideen ordean, **Eragin-maila** eta **Hobekuntzak** egiteko aukera neurtuko dira.

Kasu guztietan ere, irizpide horietako bakoitza 1etik 3ra bitartean balioetsiko da, eta, beraz, Maila esanguratsua 1etik 9ra bitartekoa izango da beti, eta maila txikia, ertaina edo handia izango da, ondorengo taula honetan zehaztutakoaren arabera:

	Maila esanguratsua	
>6	ALTUA	Alderdi esanguratsuak
2, 3, 4	TARTEKOA	Esanguratsuak ez diren alderdiak
1	BAXUA	Esanguratsuak ez diren alderdiak

ADIERAZLEAK KALKULATZEKO ASPEKTU-METODOLOGIKOAK

Okupazio-bolumenaren kalkulua honela egiten da:

lau parametroen kalkulua barne hartzen du: okupazioaren dentsitatea (1) meteorologiaren (2) arabera, hondartzaren azalera (3) eta denboraldiaren iraupena (4). 4 parametro horiek honela kalkulatu dira:

(1) okupazioaren dentsitatea bainu-denboraldian eguraldi "ona" egin duen egunen arabera da; hala, bada, egun eguzkitsuetan okupazioaren dentsitatea maximoa izango da –erabiltzaile bat hondartzaren 4 m² bakoitzeko –; egun lainotuetan, okupazioa, egun eguzkitsuetarako kalkulaturako okupazioaren % 20koa izango da, eta egun euritsuetan, okupazioa, egun eguzkitsuetarako kalkulaturako okupazioaren % 5 izango da.

(2) Egun eguzkitsuen, lainotuen eta euritsuen kopurua Euskal Herriko Meteorologia Zentroari eskatuko zaio; zehazki, kalkulatu nahi den urteko bainu-denboraldiko datuak eskatuko zaizkio.

2016ko datuak dira:

EE: egun eguzkitsuen kopurua: 49

EL: egun lainotuen kopurua: 48


EEu: egun euritsuen kopurua: 25

(3) Hondartzaren azalera Ministerioko Itsasertzetako Zerbitzutik hartu da: 31.000 m²

(4) Denboraldiaren iraupena. ekainak 1etik irailaren 30era hartzen da.

Beraz, kalkulua honela egiten da:

Udako erabiltzaile kopurua = (EE x 0,25 + EL x 0,05 + EEu x 0,0125) x HA



2016 urterako estimaturako erabiltzaile kopurua: 2,992.500 izan da.

INGURUMENAREN ARLOKO JOKABIDEA EZAGUTZEKO BESTE ADIERAZLE BATZUK

HONDAKINAK: Oinarrizko adierazleak

	2014	2015	2016
Sortutako hondakinak, guztira (t)	14,16	13,94	8,47
Gaika bildutako hondakinak (t)	7,66	7,57	4,96
Gaika biltzen ez diren hondakinak (t)	6,50	6,37	3,51
Ontzi hondakinak (t)	2,62	2,98	1,92
Paper eta kartoi hondakinak (t)	2,87	3,14	1,59
Beira hondakinak (t)	2,17	1,45	1,45
Erabiltzaile kopurua (unitateak)	3145000	3267500	2992500
Hondakin osoak(kg) 1.000 erabiltzaileko	5,5	4,27	2,83
Gaika bildutako hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	2,44	2,32	1,66
Gaika biltzen ez diren hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	2,07	1,95	1,2
Ontzi hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	0,83	0,91	0,64
Paper eta kartoi hondakinak (kg)1.000 erabiltzaileko	0,91	0,96	0,53
Beira hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	0,69	0,44	0,48

UR-KONTSUMOA Oinarrizko adierazleak

	2014	2015	2016
Ur-kontsumo zuzen osoa (m3)	13455	11860	11530
Erabiltzaile kopurua (unitateak)	3145000	3267500	2992500
Ur-kontsumoa(m3), 1.000 erabiltzaileko	4,28	3,63	3,90

ENERGIA ELEKTRIKOA Oinarrizko adierazleak

Energia elektrikoa bakarrik kontsumitzen da. Hondartzako eta pasealekuko instalazioetan kontsumitzen den energia osoa berriztagarriak ez diren iturrietatik dator.

	2014	2015	2016
Energia-kontsumo zuzen osoa (MWh)	52,85	57,14	47,67

BIODIBERTSITATEA Oinarrizko adierazleak

Lurzoruaren okupazioa: Malekoiak okupatzen duen azalera, azalera artifizializatua bezala kontuan hartu da.

	2014	2015	2016
Eraikitako azalera (m ²)	28365	28365	28365

EGURATSERAKO ISURIAK Oinarrizko adierazleak

Berotegi efektuko gaseni isuri osoen kalkulua egiteko pasealekuan eta hondartzan egiten den energia elektrikoaren kontsumoa kontuan hartu da. (konbertsio faktorea 0,459 kgCO₂/kWh, Udalsareako Aldaketa Klimatikoko kalkulu orrian oinarritua)

	2014	2015	2016
BEG isuriak (kgCO ₂ e) (bihurketa-faktorea 0,459)	24256	26228	21882

Aire isuri osoen kalkulua egiteko (SO₂ eta NO) pasealekuan eta hondartzan egiten den energia elektrikoaren kontsumoa kontuan hartu da. (konbertsio faktorea 0,113 gr SO₂/kWh, eta 0,086 gr NO/kWh dira <http://www.wwf.es> iturritik hartua)

	2014	2015	2016
SO ₂ aire isuriak: (kg SO ₂) (bihurketa-faktorea 0,113)	5,97	6,46	5,39
NO aire isuriak (kgNO) (bihurketa-faktorea 0,086)	4,54	4,91	4,10

2016 URTEKO PROGRAMA

Xedeak/Ekintzak	Arduraduna	Baliabidea	Adierazlea
1. HELBURUA: pasealekuan sortutako hondakin kopuru osotik, birziklatutako hondakinen ehunekoa handitzea.			Bereizketa tasaren portzentaia
1-1: Hondakinak behar bezala bereizteko herri mailako sentsibilizazio kanpaina. (ikastetxe, elkarte eta ostalaritzan)	IKS erantzukide	10.000 €	Egindako ekintza
2. HELBURUA: hondartzaren eta hondartza inguruko eremuaren Natur Balioa babestea			
2-1: Dunetako landarediaren liburuxka argitaratzea. (Aranzadi Elkartearekin) 2-2: Hondartzako arroketo bioaniztasuna aztertzea eta ezagutaraztea. (Azti Tecnaliarekin) 2-3: Biotopoko hegaztien azterlana egitea (Arkamurka Natur Taldearekin) 2-4: Azti Tecnaliarekin hitzarmena sinatzea, itsas ertzeko dinamikaren azterlana egiteko Kostasystem proiektuarekin jarraitzeko.	IKS arduraduna	Teknikariaren orduak eta 14.000 €	Egindako ekintza
3. HELBURUA: Energia elektrikoko kontsumoa murriztea.			Kontsumituko energia
3-1: Lanparak aldatzen joatea eta potentzia gutxiagokoak jartzea. 3-2: Argiteriaren ordutegia berraztertzea. 3-3: Argiterian LED sistemen aukera aztertzea.	IKS arduraduna	Dedikazio denbora	Egindako ekintza

Ingurumenaren gaineko Deklarazio honen ingurumen-egiaztatzailea AENOR Internacional SAU izan da, ENAC Egiaztatze Erakunde Nazionalak ES-V 001 zenbakiarekin egiaztatutakoa.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Sailburuordeak, 2004ko maiatzaren 27ko ebazpenean, Zarauzko Udaleko Udal Zerbitzu Teknikoen Saila, Zarauzko Hondartzaren Kudeaketa Integralaren kudeatzailea, EMAS Ingurumen Kudeaketarako eta Ikuskaritzarako Europako Erregistroan txertatu du. Erregistro hori berretsi du 2008ko azaroaren 27an, 2010eko abenduaren 20ean, 2013ko urriaren 23an eta 2016ko urriaren 17an, eta, indarrean dago, 2019ko ekainaren 19a arte. Erregistro zenbaki da: ES-EU-000021.

BALIOZTATUTAKO INGURUMEN AITORPENA

AENOR

(CE) 1221/2009 ARAUDIAREN ARABERA

ES-V-0001
ZENBAKIAREKIN AKREDITUTAKO EGIAZTATZAILE
NAZIONALA

Balioztatze data: 2017-07-18

Ingurumenaren gaineko Deklarazioa balioztatzeko ikuskaritza 2017ko ekainean egin da.

urrengo Ingurumenaren gaineko Deklarazioa egiteko epea 2018 urterako finkatu dugu.